

**HEZKUNTZAREN HISTORIA EUSKAL HERRIAN:
IKASTOLA. HISTORIA DE LA EDUCACION EN EL
PAIS VASCO: LA IKASTOLA**

MARIA DOLORES GOYA (Gros-eko Ikastola)

XABIER ARANBURU PUENTE

OHARRA

Aurkezten dugun lan hau, Ikastolaren Historiaren zati bat da. Bertan, 1951. urtetik 1975. urterarte, Donostiako Gros auzoko Carquizano kalean, María Dolores Goya andereinoak zuzendu zuen Ikastolaren Historia egiten da.

Ikerketa, Goya andereinoarekin irakaskintza lanetan aritu zen bere alaba Miren Egaña Goya-rekin mantendutako elkarrizketen ondorioa da.

Argi dago, hau lan monografiko bat dela, gure ikuspuntu xehean, lan monografiko ugari beharrezkoak bait dira, etorkizunean Hezkuntza Euskal Herrian eta bereziki Ikastolaren Historiaz ikerlan orokor eta osoago bat egin ahal izateko.

Beraz, lantxo honen helburua ez da, noski, Ikastolaren gaia agortzea, noizbait egin beharko den ikerketa orokor baten lagungarri edo osagarri izatea baizik.

El trabajo que presentamos a continuación relata la Historia de la Ikastola que entre 1951 y 1975 dirigió la profesora María Dolores Goya en la calle Carquizano del barrio de Gros de San Sebastián.

La investigación es el fruto de las entrevistas mantenidas con Miren Egaña Goya, hija de la citada «andereino» y colaboradora suya en las tareas docentes.

Queda claro que se trata de un escrito de carácter monográfico que no pretende, por supuesto, ni agotar ni copar el tema de la Educación en el País Vasco, ni más concretamente el de la Historia de la Ikastola.

Su finalidad es, al ser un acercamiento parcial al fenómeno de la Ikastola, proporcionar datos y servir de aportación para un trabajo de carácter más general y globalizador que algún día habrá que hacer en torno al tema.

IKASTOLAK

María Dolores Goya (Groseko Ikastola)

Elkarrizketa: *Miren Egaña Goya-rekin, 1986.urteko abenduan. Miren Egaña Goya, María Dolores Goyaren alaba da, berarekin Ikastolan irakaskuntza lanetan aritu zena.*

Miren Egañak Magisterioko karrera du eta era berean Filologia Romanika-rena. Miren Egaña Donostian jaio zen 1946-IV-16 datan.

MARIA DOLORES GOYA-ren LEHENENGO URTEAK

I- Eginiezadazu mesedez, zure Amaren biografia labur bat, Gros-eko Ikastola fundatzen duen unerarte.

María Dolores Goya, nere Ama, Donostian jaio zen 1913-II-19 datan eta 1986-VIII-29 datan hil zen. Amak 19 urtekin Magisterioko tituloa atera zuen; hau da, 1932.urtean.

Guda-aurrean, karrera bukatu bezain laster, urte batez Etxaide kaleko ikastola batean egon zen klaseak ematen. Ikastola hau Eusko-Etxean zegoen eta P.N.V.-rena zen. Ikastola honetan, nere Ama eta beste andereino bat zeuden.

Gero, Gros auzoan egon zen klaseak ematen, Usandizaga kaleko Ikastola batean. Hemen, sustituzio bat egin zuela uste dut.

Piska bat aurrerago «Escuelas de Barriada» zelakoan lanpostu edo plaza bat ateratzeko oposizioak egin zituen, baina oposizioak ez zituen atera. «Escuelas de Barriada» Diputazioak antolatzen zituen Euskal eskola batzuk ziren. Esan dudanez, eskola hauek Euskal eskolak ziren. Diputazioak benetazko plangintza bat zeukan Euskal irakaskuntza mailan «Escuelas de Barriada» hauekin.

Amarekin jarraitzeko, 1936.urtean «maestra del Estado» izateko oposizioak egin zituen. Oposizio haiek hiru ariketa desberdinengatik osatuak zeuden. Lehenengoa egin zuen eta bigarrena egin baino lehen, Donostia Franco-ren gudarostearen pean erori zen. Orduan, nere Ama, Bilbora abiatu zen eta han hezkuntza delegazioan aurkeztu zen. Delegazioak Plentziako eskola batetara bialdu zuen eta han egon zen Errepublikak eskolak itxi zituen arte. Errepublikak bonbardeoak hasi zirenean itxi zituen eskolak. Horregatik uste dut, nere Ama Plentziako eskolan Gernikako bonbardeorarte egon zela, 1937. urterarte. Plentziako eskola hau Estatuaren eskola zen, erdal eskola publikoa; ez zen ikastola.

Gero, Sotaren «La Habana» itsasontzian, Euskal umeekin Ingalaterrara joan zen, Wight-eko ugartera. Ama, haur haiek zaintzeko joan zen; bere ardurapean neska-mutil mordo bat zuen. Ingalaterran 7 hilabete egin zituen, handik Frantziara itzultzeko.

1940. urtean, Frantziatik Donostiara etorri zen eta urte bat beranduago, hau da, 1941. urtean, Hergobian, eskola bat ireki zuen. Eskola hau, Gaztelaniar eskola legala zen; «Unitaria» bat zen, hau da, adina desberdineko haurrak biltzen dituen eskola; neska-mutilak kurtsoz banaturik ez dauden eskola hoietako bat. Esan dudan bezala, eskola hau erdal eskola legala zen. Amak, garaian behar ziren baimen guztiak eskatu zituen eta eskola irekitzeko baietza eman zioten. Kontuan euki behar da nere Amarentzat, garai horretan, horrelako baimenak eskatzea oso zaila zela, Amak fitxa politikoa zeukalako. Hala eta guztiz ere, laguntza jaso zuen eta baimena lortu zuen. Dena den, eta ofizialki erdal eskola izanik, nere Amak, klaseak Gaztelaniaz eta Euskaraz ematen zituen.

Azkenik, 1943. urtean, berak eskola hau isten du eta irakaskuntzan ez du lanik egiten 1951. urte arte. Azkeneko urte honetan Donostiako Gros auzoko Carquizano kalean Ikastola zabaltzen du.

IKASTOLAREN FUNDAKETA EDO JAIOTZA

2- *Hemendik aurrera Carquizano kaleko Ikastolari buruz mintzatuko dugu. Zein zen Ikastolaren izena?*

Ez zuen izen ofizialik, klandestina zelako. Izen ofiziosorik bazuen: jendeak gure Ikastolari «Carquizano-ko Ikastola», «Gros-eko Ikastola» edo «Ikastola de la Goya» edo «de las Goyas» deitzen zion. Azkeneko izen hauek, nere Ama Goya zuelako abizen bezala eta Ikastolan Ama eta biok aritzen ginenean «Ikastola de las Goyas» zen.

3- *Nork izan zuen Ikastola irekitzeko ideia?*

Idea nere Amak izan zuen, baina Ikastola irekitzeko Elisabete Maiztegik asko animatu zuen; Elisabete Maiztegi, Garayalde medikoaren alarguna da; bera ere maestra zen. Berak animatu zuen gehien Ikastola irekitzeko. Noski nere Amak bazituen ere gogoak Ikastola bat zabaltzeko, bestela istilu horretan ez zen sartuko.

4- *Zeintzuk izan ziren zure Ama Ikastola zabaltzera bultzatu zuten arrazoiak?*

Euskara eta Euskaraz irakastea eta zapaldua zegoen Herri honengatik zerbait egitea.

5- *Fundatzailea nor izan zen?*

Nere Ama bera. Nahiz eta Elisabete Maiztegik asko animatu, fundatzailea Ama izan zen. Amak erabakia hartu zuen, Amak jarri zuen Ikastolaren egoitza... Bai, bera bakarrik sartu zen abentura hartan.

6- *Zein izan zen fundazio urtea?*

Lehen esan dugunez, 1951. urtea.

7- Deskriba ezazu mesedez Ikastolaren lokala?

Ikastola bere etxean ireki zuen, gu guztiok bizi ginen etxean; hau da, Carquizano kalean, 8.zenbakian lehenengo solairuan. Donostian noski.

Klaseak etxeko logela batean ematen zituen, nere logelan hain zuzen. Logela honek 4x4 metro zituen gutxi gora behera. Lurra, zorua, egurrezkoa zen. Bi lehio handi zituen gelak eta lehio azpian bi armario txiki zeuden. Ohea, nere ohea, plegablea zen noski, gelan lekua uzteko; armario batean sartzen diren ohe plegable hoietakoren bat zen ohe hura.

Esan dugunez, klasea etxeko logela batean zegoen. Etxea alokatua zegoen eta alokairua ordaindu behar genuen.

Haseran 10 ikasle zituen. Mahai bat gutxienez bazegoen. Mahai hau ez zen oso handia eta altua zenez, ez zen oso egokia neska-mutil koskorak, 9 urte artekoak han egoteko. Mahaiak 1,5x0,85 metro zituen gutxi gora behera. Mahaiburuan bera egoten zen eserita eta berarekin ikasle heldutxoena, lan egiten. Txikiak, aldiz, lurtean esertzen ziren hasera batetan.

Geroxeago kaballete batzuk egin erazi zituen eta okumezko taula luze batekin mahai berri bat egin zuen. Aulkiak plegableak ziren, hondartzan erabiltzen diren aulki plegable hoietako bezalakoak. Mahaia okumezko taula bat zen bastidore batekin eta bi kaballetekin. Klaseak bukatzen zirenean mahaia gordetzen zen; taula bi armarioen artean gordetzen genuen. Mahai hau ez zen altua, umeentzat egokia zen alturaz. Mahai honetan denak esertzen ziren, bai handiak, bai eta txikiak ere. Ez zegoen jadanik inor lurtean.

1964. urtean aldaketa bat gertatzen da. Urte horretan nik Magisterioko karrera bukatzen dut eta orduan bi geunden klaseak emateko. Betidanik klasea izan zen nere logela hortara nere bi anaiak pasa ziren lo egitera, bi ohe enpotratuetan. Hala ere, logela honetan klasea ematen jarraitu zen. Ni barrualdeko beste logela batetara pasa nintzen, lo egitera eta bai eta ere klaseak ematera. Urte honetatik aurrera nere Amak, neska-mutil handiekin, 7, 8 eta 9 urtekoekin betidanik erabilitako logelan klaseak ematen zituen eta ni txikiekin, 6 urte artekoekin logela berrian nengoen.

1965. urtean, gure etxe azpian, etxebizitzaren entresueloan, lokal bat libratzen da eta lokal hori alokatu genuen. Lokala, gure ikaslea izandako aita batena zen eta guri eskeini zigun alokairu baten orde, nahiz eta jakin beste pertsona batek alokatu nahi zuela, baina guri eskeini zigun, Ikastolan egiten genuen lana garrantzitsua iruditzen zitzaiolako. Gizon honen abizena Ferreras zen. Lokal hau, gure etxeko egoitza baino askoz ere zabalagoa zen. Bi gela zituen lokalak: bata txikia, oso txikia 2,5x4 metrokoa; bestea zabalagoa zen, 7.5x4 metro gutxi gora behera zituen.

Gela handian nere Ama jarri zen ikasle heldutxoekin (7, 8, 9 urtekoekin). Gela honetan hiru mahai jarri genituen, paretaren kontra altxatzen eta gordetzen diren hoietako mahaiak. Mahai bakoitzean 10 ume sartzen ziren. Aulkiak luzeak ziren, bankoak ziren. Gela txikian bi mahai zeuden eta han ni nengoen neska-mutil txikiekin (6 urte bitartekoekin).

Urte batzutara, 1967. urtean gutxi gora behera, entresuelo berdin horretan beste lokal bat libratu zen eta guk alokatu genuen. Lokal berri honetan bi mahai jarri genituen eta hara, nere Ama pasa zen, ikasle handiekin. Haserako lokaletan ni gelditu nintzen txikiekin, orain lokal bakar bat zelarik, tabikea bota genuelako.

Entresueloko lokaleko lurra edo zorua baldosakoa zen. Ez genuen berogailu edo kalefakziorik. Arbelak bagenituen, luzeak eta fijoak zirenak, onak. Baina klaseak gure etxean eman genituenean, garai batean, ulezko arbel bat erabili izan genuen. Ulezkoa ken eta jar zitekeelako, etxean lekuaren premia genuen.

JURIDIKO ETA EKONOMIKO EGOERA

8- Zein zen Ikastolaren egoera juridikoa?

«Totalmente clandestina», bai «Clandestina total». 1951. urtean Ikastola ireki zuenean klandestina zen. Hala ere, bai Ama eta ni ere zihur geunden botereak, gobernuak bazekiela ikastolak zeudela eta gainera kontrolatuak gendela esango nizuke. Horregatik, klandestina zela esaten dizut baina «tolerada» ere.

Legezkanpoko egoera honetan 1968- 1969. urterarte egon ginen. Garai horretan bi arazo hasi ziren. Alde batetik, Manzanas inspektorea hiltzen dutenean, Oltra-Moltó gobematzailleak eraso bat egin nahi digu, ikastola guzietan eta orduan legezatzeko beharra sortzen da. Ikastolak hala nolako legezatzio bat aurkitzeko beharrean ikusten dira. Manzanas poliziako inspektorea 1968. urtean hil zutela uste dut eta 1969. urtean hasi ziren jadanik ikastolen aurka gogor. Orduan paperak egiten hasi ginen, legeztazioren bat aurkitzeko.

Beste alde batetik, 1968. urtean hezkuntza lege berri bat azaltzen da, eta bertan, beste gauza askoren artean «Libro de Escolaridad» delakoaren beharra azaltzen da; edozein ikaslek «Libro de Escolaridad» eduki behar du.

Gauza hauek kontuan edukirik, 1969. urtean Ikastola legezatu behar zela ikusi genuen. Hori lortzeko, gauza pilo bat eskatzen zizkiguten eta guk ezin genuen, eskatzen zutenarekin, gure Ikastola legezatu, beste arrazoen artean, Gaztelaniaz irakastera behartzen gintuztelako. Orduan bidea Elizaren babespean aurkitu genuen. Gure Ikastola, legearen aldetik «Escuela Parroquial» batean bihurtu zen. Honetarako baimena, Jose Maria Mugikari eskatu genion, Gros-eko San Ignazio Eliz-nagusiko parrokoari. Mugika jaunak ez zuen arazo edo oztoporik jarri. Instantzia guztiak egin genituen, eta hortik aurrera gure Ikastola «Colegio Parroquial Iñigo de Loyola» deitu zen.

Azken baietza emateko, gure legeztapenaren azken baietza emateko, hezkuntza delegazioko ikuskatzaile edo inspektorea etorri zitzaigun. Hark «visto bueno»-a eman behar zigun, lokala ikusi behar zuen eta txosten bat egin behar zuen, gure egoerari buruz. Ikuskatzailea Palacios jauna zen.

Dena den, Palacios-ek onartu gintuen beste arrazoen artean, uste dut, gure ikasleek eskulan ugari egiten zituztelako eta tankera hauetako ekintzetan lan ona egiten genuelako. Oso kezkatua zegoen ere, haurrak lurtean eseritzen ziren ala ez ikusten; guri galdetu zigun «¿No se sientan estos niños en el suelo?» eta guk aulkiak erakutsi genizkion. Errekroea non egiten genuen ere galdetu zigun, eta guk, lokal hoiere erdian aurkitzen zen patio barruti batean egiten genuela esan genion, «patio de manzanas» hartan. Gezurra zen, baina hori esan genion.

Palacios ikuskatzaile honek, nahiz eta gero beste jokaera bat izan, garai hartan, guk egiten genuen lana oso garrantzitsua zela esan zigun. Beretzat, haur haiek bere hizkuntzan haztea eta gero, koskortzen zirenean beste hizkuntza bat ikastea eta guzi hori arazo eta problemarik gabe egitea oso garrantzitsua zela esan zigun. Esan dudanez, Palacios-ek hitz hauek garai hartan esan zituen; gero jokaeraz aldatu zuen.

Esan dugunez, onartu gintuzten eta bi «Unitaria»-ntzat eman ziguten baimena. Hori oso gauza bitxia izan zen, momentu horretan hirietan «unitaria»-rik ematen ez zutelako. «Unitaria» da, andereino berdin batekin adina eta maila desberdineko neska-mutilak ikasten duten eskola. Baina guri bi «unitaria» eman zizkiguten, bata neskentzat eta bestea mutilentzat, eta hau mistoa ezin zitekeelako izan. Hortik aurrera legezatuak geunden. «Libro de Escolaridad» eman ziguten ere. 1970. urtean legeztaioa etorri zitzaigun eta 1970. urtean bertan, ekainean guk «Libro de Escolaridad» bagenituen. Momentu horretan gure Ikastola guztiz legezkoa zen, dena noski Elizaren babespean.

E.G.B.-ko legea azaldu baino lehen, Ingreso egin arte ez zen behar inongo titulaziorik; neska-mutilak Ingreso egiteko prestatzen ziren. Gure neska-mutilak azterketa baten menpean zeuden orduan. Mutilak, 9 urterekin Ikastola uzten zutenean Jesuitetara joaten ziren eta neskak San Bartolomera edo inguruetako beste monja eskola batetara. Eskola hauetan azterketa bat egiten zieten, onartuko zituzten edo ez ikusteko, eta beren prestakuntza ikusteko. Badakigu Jesuitak nahiko gogorrek zirela, baina oso ondo onartzen zituzten ikastoletako mutilak. Beraientzat garantia bat zen ikastoletatik eta gure Ikastolatik etortzen zitzaizen jendea; bazekiten gure haurrak oso ondo prestatuak zeudela.

«Cartilla Escolar» edo «Libro de Escolaridad»-en beharra hasi zenean eta guk oraindik «Cartilla»-rik ez genuenean, guk zertifikatu batzuk ematen genituen, maestra partikular batzuk izango bagina bezala. Guk emandako zertifikatu hauetakoren bat «Asuncion» eskolan izango duzu.

9- Arazo burokratikoek gain, hoietaz piska bat hitzegin dugunez, beste motatako arazorik euki zenituzten?

Guregana ez zen inoiz polizia etorri, inspektorea bai, hezkuntza delegazioko ikuskatzailea bai, baina polizia ez. Ikuskatzaileak ez zituen arazorik

jartzen, arazo handirik esan nahi dut. Bakarrik, Palacios ikuskatzailea Ikastolara iritxi zen lehenengo aldian, dudatan jarri zuen nere Amaren Magisterio tituloa, oso dudatan jarri zuen. Guk, Amaren tituloa horman jarria genuen han Ikastolan. Nere tituloa ez zegoen han, jesuitek eskatu zidatelako Filosofia eta Letrak ikasten ari nintzelako, baina inspektoreak ez zuen nere tituloa dudatan jartzen, nere Amarena baizik, ez nere Amaren tituloa Errepublika garaian aterata zegoelako, adina horretako emakume batek horrelako tituloa edukiko zuela dudatan jartzen zuelako. Eta gero konturatu ginen kaleko jendeak ere dudatan jartzen zuela. Batzuk uste zuten titulo bakarra nere zela eta Ama nere tituloan babesten zela. Beste batzuk alderantziz pentsatzen zuten, Amaren titulo bakarraren babesean biak ari ginela irakaskuntzan; eta egia esan, garai hartan jendeak unibertsitario titulo ateratzen zuen kopururako, senide berdinean hainbeste titulo eukitzea arraroa egiten zen; gure senidean zazpi zortzi titulo bagenituen: zeren lizentziatuak bagenituen bi, eta bi edo hiru maestra...

10- Sarrera ekonomikoak

Bakarrik hilabeterokoa, ikasleei kobratzen genien hilabeterokoa. 1951-urtean Amak ikasleko 20 pezeta kobratzen zuen. Gero, denbora batez, 25 pezeta kobratu zituen. Azkenean, 1975. urtean 500 pezeta kobratzen genuen ikasleko. Udaran ez genien ezer kobratzen ikasleei eta noski Ikastolatik ez genuen dirurik jasotzen. Noski, Seguritate Sozialik ez genuen. Gainera, senide batek haur bat baino gehiago ekartzen bazuen Ikastolara, zaharrenari hilabeteroko osoa kobratzen genion, baina bigarrenari gutxiago kobratzen zitzaion eta hirugarren bat bazuen, gutxiago oraindik.

11- Hilabeterokoaz gain, beste motatako diru laguntzarik jasotzen zenuten?

Hilabeterokoaz aparte, ez zegoen inongo diru laguntzarik. Erakunde ofizialek noski ez ziguten lagundu. Jendeak, gurasoek eta partikularrek laguntza extrarik ez zuten egiten, bakarrik hilabeterokoa. Ez genituen ere dirua lortzeko kanpainarik edo bildumarik egin.

1968. urterarte egoera hori izan zen. Urte horretan, ni diru laguntza bat eskatzera ausartu nintzen. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialari eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalari diru eskakizun bat egin nien, Ikastola pintatzeko eta liburuak erosteko. Instantziak eta gutunak Euskara soilean egin nituen. Ez zidaten erantzunik eman. Bakarrik, handik 2 urtetara Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak «Auspoa»-ko liburu batzuk bidali zizkigun.

Prestamork ez genuen inoiz eskatu.

Lehen esan dut gurasoek bakarrik hilabeterokoa ematen zutela. Hori horrela zen, baina gogoratzen dut, 1967. urtean guraso batek, Arrazola jaunak, Ikastola pintatu zigula bere kontura dana eta bai eta ere enpapelatu, garaian «Vamos a la cama que hay que descansar...» komikiaren pertsonaiekin. Esan dudanez, obra hau bere kontura izan zen.

Bestalde, Ikastolaren mahaiak, arbelak, materiala eta lokalaren alokairua nere Amak ordaintzen zuen, Ikastolako ikasleengandik kobratzen zuen hila-beterokotik.

12- Zein zen irakasleen egoera ekonomikoa?

1964. urterarte Maria Dolores Goya, nere Ama, bakarrik zegoen Ikastolan. Esandako urtetik aurrera, Ama eta biok geunden. Ez zegoen besterik; ez genuen irakasle ghiagorik eduki.

Soldatarik ez genuen kobratzen; Ikastolan lortzen zen diru guztia Ikastolarentzat eta gure familiarentzat zen.

Seguritate Sozialik ez genuen ere. 1969. urtean Ikastolaren legeztapena zetorrenean, Elizaren babespean noski lehen kontatu dudana bezala, orduan, une horretan nere Ama Autonomoetan segurtatu zen.

13- Zuen Ikastolak ba zuen barne arautegirik?

Ez genuen barne arautegirik eta ez ziguten inoiz eskatu. Ikastola legeztatzeke garaian, paper eta dokumentazio berezi bat eskatu ziguten, horren artean Ikastolaren plano bat zegoen, gure titulazioa eta instantzia bat egin behar izan genuen baina barne arautegirik edo reglamentaziorik ez ziguten eskatu, eta guk, esan dudanez, ez genuen. Eta hau horrela zen gure Ikastolan Ama eta biak ginelako, eta gurasoen juntarik ez guelako gure atzetik.

Elizaren babespean jarri behar izan genuenean ez ziguten eztaere barne arautegirik eskatu: guk egin genituen paper guztiak, guk eskatu genuen baimena, Elizaren izenean parrokoak sinatu zituen, baina paperak egin eta bideratu guk egin genuen eta esaten dudanez ez ziguten barne arautegirik esigitu (1).

PEDAGOGI ARLOA

14- Irakasleak?

Jakina denez, Ama eta ni ginen. Ez zegoen besterik.

Bi alditan ordezkioak edo sustitutoak hartu genituen. Behin Ama gasotu egin zen, eta orduan, hilabete batez nere lehengusu bat aritu zen Ikastolan laguntzen. Nere lehengusua Ikastolen munduan aritua zen eta bere ikasketak I.S.S.A. -ko sekretariadutza zen.

Nik bigarren haurra eduki nuenean, berriz ere, hilabete batetarako beste ordezkio bat ekarri genuen. Magisterio bukatzen zegoen neska bat etortzea lortu nuen, Errebalida bakarrik falta zitzaion bukatzeko.

(1) Elkarrizketaren une honetan Miren Egaña Goyaren aitak parte hartu zuen zera esanez: «si tenáis un reglamento y era el siguiente: enseñar lo más posible»

Hontaz aparte ez genuen irakasle berririk euki. Ez genuen irakasle berririk etortzea pentsatu, ez genuelako Ikastola handitzea pentsatu, beste arrazoen artean ikastolak eraikitzen zirelako eta zegoeneko ikastola handiak egiten hasiak zirelako: Ikasbide Amaran eta Grosen Zurriola.

15- Irakasleen prestakuntza zein zen?

Gu biak, Ama eta biak, maestra ginen; magisterioko ikasketak burutuak genituen eta «Maestras de Primera Enseñanza» ginen.

Horretaz gainera, nik Filosofia eta Letrak ikasten hasi nintzen eta gainera nik Frantseseko eta Ingleseko titulo batzuk nituen, Sorbonako eta Cambridgeko tituloak hain zuzen, eta hau zela medio, boluntarioki nahi zuten haurrei frantseseko klaseak ematen nizkien, klasetik aparte; denek bukatzen zutenean nahi zutenak geratzen ziren eta frantseseko klaseak ematen nizkien.

Ordezkoak edo sustitutoak hartu behar izan genituenean mundu honetako jendea bilatu genuen. Lehenengo sustituzioa egin behar izan genuenean, ikastoletan ibilitako pertsona bat ekarri genuen, lehen esan dudan bezala, eta bigarren sustituziorako Magisterioko ikasketak bukatzen ari zen pertsona bat ekarri genuen.

16- Ikasleak. Nola lortzen zenituzten ikasleak?

Ikasleak, zetozenak. Nere Ama hamar ikasleekin hasi zen. Gero, piskanaka gehitzen joan zen kopurua eta hogeik ikasle edukitzerara iritsi ginen; hogeik ikasle bera bakarrik zegoen garaian, klaseak ematen zituen gelan ez zelako haur gehiago sartzen.

Ni Amarekin irakasle bezala hasi nintzenean eta etxean klaseak emateko gela berri bat ireki genuenean 40 ikasle eukitzerara iritsi ginen; Amak 20 ikasle eta nik beste 20. Gure etxean 40 haur baino gehiago ez genuen euki, leku falta genuelako.

Azkenean, entresuelo lokaletara pasa ginenean, gela batean 40 eta bestean 20, gehienez bion artean 70 ikasle genituen.

Urtez urte guk bagenekien zenbat ikaslek alde egingo zuten eta kopuru horren arabera guk ikasle berriak hartzen genituen, jendea apuntatzen zen ordena errespetatuz.

Askotan jendeari ezetza eman behar genion, lekurik ez genuelako. Jendeak Ikastolara eraman nahi zituen bere haurrak eta guk askotan gurasoeri ezetza ematen genien kopurua beteta geneukalako eta lokaletan lekurik ez geneukalako. Hau urtero gertatzen zen, ia beti.

Hala eta guztiz ere, baziren nola hala, erdi indarrez bere haurrak sartzen zizkiguten gurasoak. Orain gogoratzen dut: emakume bat etorri zen bere haurra Ikastolan apuntatzera eta nere Amak lekurik ez zegoela esan zion, asko sentitzen zuela baina ez zegoela lekurik. Emakumeak ez zuen onartu eta nere Amari zera esan zion: «nere umea hartu behar duzu; nik ekarriko dizut aulki txiki

bat eta zintzilikairu bat mandala jartzeko, baina nere umea hor euki behar duzu». Emakume hark bere haurra erderaz esaten den bezala «por narices» sartu zigun. Honelako kasoak baziren eta hoiien aurrean pentsatzen zenuen «ba nik hau nola utziko dut kalean» eta onartzen zenuen. Beste guraso batzuk errezago konformatzen ziren; lokala erakusten genien eta beteta zegoela ikusten zuten, Ikastolan sartzeko lista edo «lista de espera» ere ikusten zuten beteta eta konformatzen ziren. Ikus daitekenez, Ikastolan sartzeko demanda handia zegoen.

17- Ikasleen gizarte edo sozial jatorria?

Guk ez genituen bereizketarik egiten. Era guzietako jendea zetorren Ikastolara. Han langileen seme-alabak bazeuden eta baitaere dirudunen seme-alabak. Denak nahasiak zeuden eta guk ez genuen preferentziarik edo bereizketarik egiten bata edo bestea hartzeko. Bestalde umeek ez zituzten arazorik bere artean eta gehienetan ez zekiten bata bestearen gurasoak zer ziren edo gizarte zein mailakoak ziren.

Esan dudan bezala Ikastolan gizarte maila guztietako pertsonak zeuden. Kontuan euki behar da garai hartan Ikastola beste eskola baino merkeagoa zela, ez eskola publikoa baino merkeagoa baina bai edozein eskola pribatua baino merkeagoa. Hau horrela zen, zihur asko, beste eskoletako irakasleak aseguratua egongo zirelako. Guk Ikastolan ez genuen segurorik eta gurasoek udaran ez ziguten hilerokoa ordaintzen; guk udaran ez genuen soldatarik. Bestalde, gure lokala mantentzea ez zen oso garestia gertatzen; guk lokalagatik errenta bat ordaintzen genuen urtero, eta urtero eskola zuritzen genuen. Hau eskola handi bat mantentzea baino merkeagoa da. Gauza guzti hauek gure Ikastola merketu arazten zuten, gure Ikastola merkeago ateratzen zitzaizen gurasoiei. Arrazoi honengatik gizarteko edozein mailako pertsonak bial zezakeen bere umea gure Ikastolara. Dena den, ez dut uste hau arrazoi nagusia zenik; gehiengo batek Euskal eskola zelako bialtzen zituen bere haurrak Ikastolara, Euskaraz eta Euskal mundu batean irakasten zelako. Beste abantaiak ere bazituen gure Ikastolak eta ikastolak orokorrean. Adibidez Ikastola mistoa zen. Donostian eskola frantsesa eta eskola alemanaz aparte, ikastolak ziren heziketa zentru misto bakarrak. Alde horretatik aurrerakoia zela esan daiteke. Baina hala ere, nik ez dut uste horregatik ekartzen zituztenik, Euskaraz eta Euskal giroan irakasten zelako baizik.

18- Didaktika arloa: zeintzuk ziren zuek irakasten zenituzten hezkuntza mailak?

Guk 3 urteko haurrak hartzen genituen eta 9 urte bete arte eukitzen genituen; hau da, Ingreso egin arte. Ingreso kurtso oso bat zen, eta 9-10 urtekin egiten zen. Guk Ikastolan ez genuen kurtso hau irakasten, gure ikasleek fraile edo monjetako eskoletan betetzen zuten. Ikasturte hau igaro eta gero, azterketa bat egiten zuten Batxillergoko ikasketara igarotzeko. Baina gure ikasleek beste azterketa bat zeukaten: erdal ikastetxeetan onartuak izateko azterketa. Beraz ikastoletako umeek zera egin behar zuten: erdal eskolek onartzeko jartzen

zieten azterketa, Ingresoko kurtsoa eta azkenik Ingresoko azterketa Baxillergora igarotzeko.

Gure Ikastolan, Ama bakarrik zegoenean, bera ikasle guzietaz arduratzen zen; 3-9 urte bitarteko haurrak berarekin zeuden. Amak edadez sailkatzen zituen eta bi mahaietan jartzen zituen. Mahai batean, berarekin, neska-mutil helduenak zituen. Bestean txikienak edadez mailakaturik.

Entresueloko lokaletara pasa ginenean, Amak azkeneko bi urtetako gazteak hartu zituen, hau da 7-8 eta 8-9 urte zituzten ikasleak. Nik aldiz, 3-4, 4-5, 5-6 eta 6-7 urtetako umeei ematen nien klase. Nik lau mahai nituen eta haietan mailakatzen nituen ikasleak edadez. Amak noski, bi mahai zituen bere haurrak sailkatzeko. Umeentzako garrantzi handiko gauza zen mahai batetik bestera pasatzea edo igarotzea, horrek kurtsoz edo mailez igaro zutela esan nahi zuelako.

Ikastola ofizialki eskola «Unitaria» zen: andereino berdin batekin maila eta adina desberdineko haurrak batzen dituen eskola. Eta Ikastola mistoa zelako, ofizialki bi «Unitaria» ginen: bata nesken «Unitaria» eta mutilen «Unitaria» bestea. Antolaketa hau 1970. urterarte mantendu genuen. Urte horretarik aurrera E.G.B. sistema inposatu zen eta guk eskolaurrea eta E.G.B.-ko 1., 2. eta 3. kurtsuak irakastera pasa ginen. E.G.B. -ko lehen aroko kurtsu guztiak ez genituen irakasten, 4. eta 5. kurtsuak ematen ez genituelako, eta beraz lehen bezala haurrak 9 urte bete arte genituen eskolan.

19- Zein hizkuntza erabiltzen zenuten klaseak emateko?

Euskara, gai guztiak Euskaraz ematen genituen.. Azkeneko kurtsokoekin, 8-9 urte zituzten ikasleekin Gaztelania piska bat lantzen genuen, urrengo kurtsua erdal eskola batean bete behar zutelako, Ingresoa Gaztelaniaz egin behar zutelako. Ikasle hauek zera jakin behar zuten: batuketak, kenketak, batuketa lasterrak (=multiplicación) eta zatiketak, dezimaleko zatiketak ere bai. «Sistema Métrico Decimal» ere irakasten genien. Guzti hau Euskaraz ikasten zuten. Matematikako asmakiloak ere Euskaraz egiten zituzten. Asmakilo gehienak guk asmatzen genituen, Euskal testorik ez zegoelako. Bakarrik «Bruño» argitaletxeak aterata zeukan matematikako liburu bat Euskaraz lortu genuen eta handik zenbait asmakilo ateratzen genituen, baina gehienak guk asmatu behar izan genituen.

Esan dudana bezala, Gaztelania 8-9 urtekoekin lantzen genuen. Hauei gramatikazko edukinak, Gaztelar ortografia, analisi gramatikalak eta diktaketak erakusten genien. Gaztelania lantzeko ariketa hauek astean bi aldiz egiten genituen.

Gure ikasleak, orokorrean, ez zituzten arazorik izaten ortografia mailan adibidez. Nahiko azkar antza ematen zaio haur bati arazoak eukiko dituen ala ez. Ume bat abila eta azkarra baldin bada, abila eta azkarra Euskaraz eta Gaztelaniaz izango da. Euskara menderatzen zutenek Gaztelania menderatzen zuten eta ez zituzten ortografian arazorik.

Amaren Ikastolan ibilitako ikaslegoaren gehiengoak ez zuen arazorik izaten Ingresoko kurtsoa erdal eskola batean egiteko. Gainera, nahiko ondo prestatuak egon behar zuten zeren jesuiten eskolan gure ikasleak onartuak izaten ziren esamina egin gabe, bazekitelako ondo prestatuak zeudela.

20- *Zein zen irakasteko erabiltzen zenuten materiala?*

Haseran baterez. Geroxeago Amak «Txomin Ikasle» (2) liburua lortu zuen: ale bakarra. «Txomin Ikasle» Fermin Iturriozen obra da, gerra aurrekoa, Eusko Ikaskuntzak argitaratua bere garaian. Liburua debekatua zegoen eta dendetan ez zen aurkitzen. Ez dakit Amak nondik lortu zuen ale hura; uste dut berak bazuela bat, gordeta. Liburu honekin Amak letrak irakasten zizkien ikasleei; ale bakar horrekin neska-mutil guztiak irakurtzen hasi ziren.

Handik urte batzutura «Leoi-Kumea» (3) liburuaren ale batzuk eskuratu zituen nere Amak. Hau Orixeren obra da, gerra ondoan egina. Liburua Frantzia inprimatua zegoen eta oso garestia zen. Horregatik nere Amak ale bakar batzu erosi zituen Baionan. Liburu hau irakurketa liburu bezala erabiltzen genuen.

«Itun Zaharra» ere erabili genuen. Bi edizio zeuden; bata formato txikikoa eta bestea handia. Haseran txikiak lortu genituen. Bizkaieraz idatziak zeuden eta irakurketa mekanikoaren ariketak egiteko erabiltzen genituen.

Bitartean, 1968. urtean edo behar bada lehentxiago, Maritxu Barriolak egindako «Xabiartxo» (4) liburuaren edizio «pirata» edo klandestinoaren ale batzuk lortu zituen Amak. Maritxu Barriola etxez eta ikastolaz ikastola joan zen «Xabiartxo»-ren zenbat ale erosiko zizkioten galdezka. Zerrenda bat egin zuen eta Isaac Lopez Mendizabalen inprimategian, «Xabiartxo» liburuaren gerra aurreko edizioen plantxekin, edizio klandestino hura burutu zuen. Barriola andereinoak, liburu hauek gerra aurretik almatzenatuak balaude bezala saldu zituen; behintzat guri hori esateko eskatu zigun eta inoiz ez esatea berak edizio berri bat inprimatu zuela. Nik pentsatzen dut, guzti hau egiteko Isaac Lopez Mendizabalen baimenarekin kontatzen zuela.

Nere Amak Maritxu Barriolari 10 ale erosi zizkion. Gogoratzen dut 68 pezta balio zuela ale bakoitzak. Hori diru asko zen garai hartan. Gainera Amak 10 aleen dirua aurreratu behar izan zion. Liburu hauek kontrol handi batez banatu genituen ikasleen artean: senide bakoitzeko bat; gero anai-arreba zaharrek gazteei pasa behar zioten liburu edo ta beste senide bati saldu.

(2) Iturrioz, Pirmin «Txomin-Ikasle. Euzko-umiei irakurtzen erakusteko lenengo idaztia» Iñaki deunaren irarkola, Donostia. Garibai 28, 1931.

Bigarren edizioa: Diputación de Guipúzcoa, 1967.

(3) Orixe «Leoi-kumea» Arts et Métiers Graphiques. Paris, 1948.

(4) López Mendizabal, Ixaka «Xabiartxo. Umiei euskaraz irakurtzen erakusteko idaztia». Ed. López Mendizabal, imprenta, 1932.

Eta guzti hau, liburua debekatua zegoelako eta liburudendetan aurkitzen ez zelako.

«Xabiartxo» oso liburu ona zen, bai irakurketak egiteko, bai ikuitzen zituen gaien azterketa egiteko. Gainera gai asko tratatzen zituen. Guk materiale honekin asko genuela uste genuen, oso ondo geundela pentsatzen genuen.

1967. urtean Diputazioak «Txomin Ikasle» obraren ale asko jarri zituen salgai eta salneurri on batera gainera. Orduan guk 200 ale gutxi gora behera erosi genituen eta nahi haina edukitzera pasa ginen.

Dena den, bitartean, Durangoko liburu azokan Amak «Umien Adizkidia» (5) liburua erosi zuen eta hontara pasa ginen irakurketa lanak eta ariketak egiteko. Liburu honekin ikasleek askoz ere azkarrago ikasten zuten irakurtzen. Obra honetan silaba inbersak edo kontrakoak haseratik daude eta liburuaren azkenaldean hitz osoak daude eta testoa ere bai. Bizkaieraz zegoen eta guk bizkaieraz irakurtzen genuen: adibidez «Begoñako Ama neskutza Bizkaiaren zaindarija». Guk ez genuen «ja» hori «ya» ahozkatzen, «ja» fuerte baizik, hemen horrela esaten delako.

«Txomin Ikasle» liburua traumatikoa zen. Ikasleak ondo hasten ziren irakurketan, baina kontrako silaben orrialdera iristen zirenean gelditzen ziren eta asko kostatzen zitzairen orri hori gainditzea. «Umien Adizkidia» liburuan berriz, kontrako silaba hauek haseratik daude; «ar», «an» eta mota hauetakoa silabak lehenengo ikasgaietan ere daude. Arrazoi honegatik ikasleek poliki poliki ikasten zituzten eta ez ziren lehen bezala gelditzen edo estankatzen. Guzti hau ikusirik, Amak «Txomin Ikasle» «Umien Adizkidia»-rengatik aldatu zuen. Hau da, hasera batean ikasleek «Txomin Ikasle» eta «Xabiartxo» erabiltzen zuten irakurketarako. Geroxeago «Umien Adizkidia» eta «Xabiartxo».

Irakurketa ikasteko liburu hauetaz gain, beste liburu batzuk erabili izan ditugu. «Sabin Euskalduna» (6) adibidez. Liburu hau gurea zen, ikasleek ez zuten. Guk diktaketak egiten genizkien. Obra honen bidez Historia piska bat irakasten genien azkeneko kurtsoetako neska-mutilei.

Geografia aztertzeko «Lutelestia. Iru mailatan» (7) liburua erabiltzen genuen, Permin Iturriozen obra.

Hauekin batera, bazeukan Amak «Bruño» argitaletxeak gerraurrean plazaratutako matematikako liburu bat, Euskaraz eta Gaztelaniaz idatzia zegoena. Liburu honetatik matematikako zenbait asmakilo eta ariketa ateratzen genituen; hala ere, ez ziren nahikoak eta guk asmatu behar izaten genuen ariketa pilo bat.

(5) Azpeitia, Julene «*Umien Adizkidia*» Talleres gráficos Ordorica. Muelle de la Merced, 3. Bilbao. Depósito legal: VI-679-1961.

(6) Estornés Lasa, Beñat «*Sabin Euskalduna*» Eusko Argitaldaxia Zelaya lagunak. Zarautz 1931.

(7) Iturrioz, Pirmin «*Lutelestia iru mailatan*» Imprimator Victoriae, 22 Januarii, 1932.

Bitartean, eta ez dakit zehazki zein urtetan, Aurrezki Kutxa Munizipalak, bertso liburu batzuk bidali zizkigun. Liburuak «Auspoa»-koak ziren. Nik uste duk Kutxak hori egin zuela nolabait «Auspoa» laguntzeko. Kutxak «Auspoa»-ri liburuak erosi zizkion eta guri eta beste ikastolei oparitu. Dena den, guri zenbait liburu eman zizkiguten eta noski lagungarri gertatu zitzaigun.

Aurrerago, «Jostatuz mintzaira Ikas» liburua eta «Txuri eta Gorri eta Kikiriki» (8) obra, Manuel Lekuonarena. Bi liburu hauek azken garaikoak dira, nahiko berriak.

Orain arte bakarrik liburuetaz hitzegin dugu. Erabiltzen genuen beste material bat bloka zen. Umeek bloka erabiltzen zuten, marra gabeko bloka; hau da, bloken orriak zuri zuriak ziren. Hauetan idazlanak egiten zituzten. 3 urtetako ikasleek han hasten ziren marrak eta borobilak egiten eta kurtso bukaera marra eta borobil hoiek «i» eta «co» hizkietan bihurtzen ziren. Blok hauetan ere marrazki libreak egiten zituzten.

Txikientzako, 3 eta 4 urtekoentzako nahiko materiala lortu genuen. Alde batetik arotzen errekorrekin jokoak egiten genituen. Arotzen egurrezko errekorreak hartu, guk margotzen genituen eta txikientzat jokoetan bihurtzen ziren. Txikiek joko hauekin lan asko egiten zuten.

3 urtetako neska-mutil hauek guk Baionatik ekartzen genituen joko didaktikoekin ere asko jolasten zuten. Joko didaktiko hauek gaur egun oso ezagunak dira eta edozein etxeetan daude baina garai hartan ez ziren salgai eta guk Baionatik ekartzen genituen: laukiak eta kuboak bata bestean barruan sartzeko, edo pilak egiteko edo puzzle handi samarrak. Baionatik ere behatzekin margotzeko pinturak ekarri genituen, tosikoak ez diren margoak, eta txikiek hoiekin margotzen primeran ibiltzen ziren.

Zinea ere erabiltzen genuen; ez klaseak emateko, atsedernaldi edo aktibitate berria bezala baizik. E.U.M.I.G.-ek, Aurrezki Kutxa Munizipalarekin batera zineko proiektore eta kamaren erabilpena irakasteko kurtsilo bat antolatu zuen. Kurtsiloa ikastetxe eta ikastoletako irakasleei zuzendua zegoen. Nik ikastaro hura egin nuen. Garaiko 15.000 pezeta kostatzen zuen eta 500 pezetetako hilerokotan ordaintzeko aukera eskeini ziguten. Hau aparatoaren prezioa zen. Nik uste dut hau bere gaineratik 8 milimetrotako aparato zaharrak kentzeko egin zutela, guri salduz. Hau esaten dut zeren, urrengo urtean super 8 milimetrotako aparatoak atera zituzten salgai. Baina gu eresia genuen aparatoarekin geunden eta 8 milimetrotako pelikulak ikusten genituen. Filmak Maturana-n alokatzen genituen. Gehien erabiltzen genituen filmak Walt Disney-en marrazki bizidunak ziren edo ta Txarloten pelikulak.

Bukatzeko esango dut, azken azken bolaran, diskak ere lortu genituela. Adibidez «Dar-Dar Makilla Kixki» (9) ipuiak ziren. Nahiz eta diska zaharragoa izan, guk 1972. urtean gutxi gora behera erabiltzeko aukera izan genuen.

(8) Lekuona, Manuel «*Xuri eta Gorri eta Kikiriki*» Ed. Etor, 1973.

(9) «Dar-Dar Makilla Kixki. Cuentos Vascos. Ipuinak» (Disco) Columbia. Depósito Legal: S.S. 402. 1961. (portada de Ayalde. Voces de Xabier Lete. Lurdes Iriondo).

21- *Pedagogiko sistema berezirik bazenuten?*

Ez genuen sistema pedagogikorik zehazki berezia. Adibidez Amak ez zuen Elbira Zipitriak jarraitzen zuen metodoa edo sistema erabili. Piska bat, nahi genuena egiten genuen. Hala ere, eskola normal batean, erdal eskola normal batean ematen ziren gaiak ematen genituen guk. Gure sistema, sistema generala edo normalaren antzekoa zen. Adibidez, garai hartan Enziklopedia gisako jakintza erabiltzen zen; ez zen erabiltzen, gaur egiten den bezala, horrelako gaien sailkapen bat. Bai Gaztelaniaz bai eta Euskaraz ere, Enziklopedia gisako hezkuntza bat eramaten zen. Gure Ikastolan haurrek Enziklopedia bezala «Xabierto» liburua zuten. «Xabierto» obran azaltzen ez ziren gaiak guk esplikatzen genizkien. Adibidez, Ameriketako deskubrimendua ez da «Xabierto»-n azaltzen eta guk esplikatzen genuen. Azkeneko urtekoei, 8-9 urtekoei Euskal Herriko Geografia eta Historia esplikatzen genien; hau da, gai bezala zeukaten, ikasgai bezala. Baina ikasle denekin, txikiekin ere, egunero zera egiten genuen: ikasleak Ikastolara iristen zirenean, ordu erdi bat ematen genuen otoitzak egiten; denak batera otoitzak esaten genituen eta otoitzak bukatu eta gero denek Euskal Herriko mendien eta ibaien izenak esaten eta errepikatzen genituen, denek batera eta ozenki, kantu gisa, egunero, goiz eta arratsalde. Esan dudanez, ekintza hau ikasle guztiekin egiten genuen, 3 urte zutenekin eta bai eta ere 9 urte zutenekin. Txikiek ez zuten ikasten, ez ibaien izenik ez eta Aita Gurea ere; zerbait esaten zuten, entzuten zutena errepikatzen zuten baina ez zuten ikasten, ze gero bakarka galdetzen bazenien ez zekiten, baina noski, handitzen ziren neurrian ikasten zuten. Orduan, 7 urte eukitzera iristen zirenean, errepikapen ariketa hau eta gero, paretan itsatsia genuen Euskal Herriko mapa batean errepikatutako mendien eta ibaien izenak aurkitu eta lokalizatu behar zituzten. Herrialde bakoitzeko hiriburuak ere irakasten genizkien eta haiek bere blokean Euskal Herriko mapa egin behar zuten.

Euskal Herriko Historia ere ikusten genuen, sinpleki eta 1515. urterarte bakarrik iristen ginen. Handik aurrera, gure Historia Espainia edo Frantziako Estatuarekin lotuta zegoela esaten genien. Azkeneko gertakizunekin ez ginen sartzen, ez genituen esplikatzen.

Lehen esan dut guk erdal eskola batean erabiltzen zen sistemaren antzeko bat erabiltzen genuela. Hala ere, esan behar dut bai Amak eta bai nik ere, sistema normal horretaz, erdal sistema general horretaz zenbait gauzetan urruntzen ginela. Adibidez, Amak ez zuen inoiz behartu ezkertari bat eskubiarekin idaztea, eta hau egitea oso arraroa zen garai hartan. Orain gogoratzen dut gurekin ikasitako mutil bat; hori zeharo ezkertaria zen eta Amak ez zuen inoiz behartu eskubiarekin idaztea eta gainera mutilaren senideari esan zion eskubiarekin idaztera ez behartzeko. Gauza hauetan oso aurrerakoia zen, garai hartarako: ezkertien kasua, Ikastola mistoa izatea...

Ikastolan egiten genituen ekintza berezietan nahiko irekia edo aurrerakoia zela ikus daiteke ere. Astean behin eskulanak egiten genituen, denekin, handiek eta txikiekin. Adibidez, eskulan bat jostea zen, eta Ikastolan mutilek eta neskek josten zuten. Paperezko lorak ere egiten genituen. Ihauteri inguruan

Iturengo Tunturroak eramaten dituzten txapera edo kapela hoiien antzekoak egiten genituen eta abar. Ekintza hauetaz gain, larunbata goizetan ni heldu-txoenekin Ikastolatik kanpo joaten nintzen eta Uliara edo Gaztelura edo Lurdes Txikira eramaten nituen, edo ta okindegi bat ikustera eta bertan lana nola egiten zen ikastera, edo lantegi bat ikustera edo kaiara itsasontziak ikustera eta bokarta ekartzea eta puja ikustera eta abar.

Kontuan euki behar da Amak egin zuen plana Errepublika garaikoa zela, Errepublikan egin zuela. Orduan berak oinarri bezala «Centros de Interés» deitzen direnak erabiltzen zituen, eta «Centros de Interés» baten inguruan gai asko mugitzen zituen. «Centros de Interés» bat, etxe baten eraikitzea izan daiteke: adibidez, «gaur etxe bat aztertuko dugu»; etxe bat nola egiten den, zein langintza dauden, materialak zeintzuk diren eta nondik ateratzen diren materiale hoiek... Era honetan gai asko lotzen eta aztertzen dira.

Sistema hau Errepublika garaikoa da eta gerra ondoren baztertua geratu zen. Hala ere, Amak erabiltzen zuen asko gustatzen bait zitzaion.

Bestalde, ezkertiei eskubiarekin idaztera ez behartzea eta beste ekintza edo jarrera ireki edo aurrerakoiak nik ez dakit Amak Errepublika garaitik hartu zituen ala berari bururatu zitzaizkion edo nonbaiten irakurri zituen edo ta normaltasun batean egiten zen hezkuntza baten ondorioa ziren.

Aurkeztuko dut orain zein sistema erabiltzen genuen Ikastolan umeei idazten irakasteko. 3 urtetik 4 urte arte marrak eta borobilak egiten dituzte umeek eta marrazki libreak ere bai. Marrazki hauen interpretazioa eskatzen zitzaien beti ikasleei «hau zer da»? ¿-Zer da hemen margotu duzun hau?» galdetzen genien; hau da, marraztutakoaren interpretazioa. Edo ta esaten genuen «gaur itsasontzi bat marraztuko dugu» «Nola da itsasontzi bat?» eta orduan ikasleek egiten zuten ahal zutena eta azkenean zetorren interpretazioa «hau itsasontzia da» «hau itsasoa da» «hau txoria da eta hau aita eta hau ama» eta horrela ere hiztegia ikasten zuten bide batez. Kurtso bukaeran, lehen aipatu ditugun marra eta borobil hoiek «i» eta «o» hizkietan bihurtzen ziren. Ariketa guzti hauek blok batzutan egiten zituzten. Blok hauen orriak zuriak ziren, marra edo lerro gabekoak eta horrela ikasleek zuzen idazten ohitutzen ziren.

4-5 urte: bigarren urte honetan 5 bokaleak ikasten dituzte marra gabeko blokan idazten. Bokalak minuskulaz ikasten dituzte, ez maiuskulaz.

5-6 urte: 5 urte dituztenean eta bokaleak badakizkitenean, mahaiez pasatzen dira; hau da, pasatzen dira kurtsoz edo mailez eta «Txomin Ikasle» liburua lantzen hasten dira (bigarren etapa batean «Txomin Ikasle» obraren ordez «Umien Adizkidia» landuko dute). Orduan kontsonanteak ikasten dituzte. Haseran «Txomin Ikasle» liburua oso erreza gertatzen zaie bokalak lantzen dituelako eta bokalak badakizkitelako. Gero hasten dira kontsonanteak sartzen eta hasten dira kontsonante hauek irakurtzen eta idazten ere bai, orain ez blokan, bi marra estu dituzten koadernotan baizik. Honekin batera zenbakiak ikasten dituzte: letik 10era. Kurtso honetan ikasiko dute irakurtzen, zenbakiak (gutxienez 10 arte) eta ikasiko dituzte batuketa sinpleak, hamar arte egiten, eta kenketak ere bai.

6-7 tute: «Xabierto» liburua lantzerantz pasatzen dira. Gero matematikako taulak ikasten dituzte. Batuketan lilebadakin ere bai, kenketak lilebadakin eta batuketa laster sinpleak, zenbaki batekin eta oso azkarrak badira bi zenbakiak.

7-8 urte: «Xabierto» liburuarekin jarraitzen dute, baina orain «Xabierto» ez da irakurmenaren ariketa bakarrik egiteko, orain «Xabierto» liburuak ekartzen dituen edukinak aztertzen dira; hau da, irakurtzen da eta irakurtzen dena ulertu egiten da eta gaiak landu ere bai. Gero, zenbakiak eta taulak oso ondo dakizkitez eta kenketak zenbaki askokin egiten dituzte, batuketa lasterrak ere bai eta hasten dira zatiketa ikasten.

8-9 urte: Irakurtzen oso ondo dakitez; idazketak egiten dituzte, zatiketak egiten dituzte, zatiketa handiak; dezimalekin kurtso bukaeran ikasten dute eta Gaztelania ere lantzen dute azkeneko kurtso honetan. Honekin batera Geografia piska bat, Historia eta abar.

22- Zigorrak

Zigortzen zen jendea baina ez genuen jendea jotzen; noizean behin zintaldi bat eman behar genuen, baina jo, metodo bezala ez.

Zigorrak ikasleak egindakoaren arabera zeuden. Adibidez ikasle batek erderaz hitzegiten bazuen eta hauek 5 urtetik beherakoak izaten ziren, zeren 5 urtetik gora inork ez zuen erderaz egiten, inork ez zen deskuidatzen, baina txikiak batzutan bai eta erderakadak normalak baldin baziren handien mahaira pasatzen ziren; hau da, zigorra hau zen: erderaz askotan hitzegiten zuen ikasleak bere mahaia uzten zuen eta handien mahaiaren eseri behar zuen. Hau ikaragarritzko zigorra zen, txikien mahaiatik handien mahaiara pasatzea izugarritzko zigorra zen han egon behar zuelako handien artean eta mahai hartan ez zuen lagunik, inork ez zion kasorik egiten eta gainera handiek beharbada adarra joko zioten edo...

Handien zigorra berriz txikien mahaiara pasatzea zen. Adibidez ikasle handi bat beste batekin borrokan hasten bazen edo akats handi bat egiten bazuen txikien mahaiara pasatzen zen, eta noski hau izugarria zen ikaslearentzat, handi bat txikien mahaiaren gotea izugarria zen.

Beste zigor bat lurrean eseri eraztea zen, zorro gainean baina lurrean eta han bukatu behar zuen bere lana. Hau erabiltzen genuen adibidez klase osoan berriketan eten gabe aritu izan bazen.

Beste zigor bat zera zen: nere ondoan edo Amaren ondoan eseritza. Hau batez ere handientzat zen.

Adibidez, Ikastolako zerbait falta zenean, adibidez jokoren bat edo liburuaren bat, ez zen Ikastolatik inork ateratzen falta zen hura agertu arte eta noski beti agertzen zen.

Horrelakoren bat gertatzen zenean inoiz egin izan dut zorroak kendu. Ez dakizu zer nolako negarrekin jaisten ziren kalera zorrerik gabe. Nik esaten

nien: «zuek Ikastolako den zerbait kendu duzue eta orduan nik zuena den zerbait kendu egingo dizuet eta horregatik zorroak hemen geldituko dira». Zorroak kentzea ez zitzaien batere gustatzen, zorroetan bere gauzak zeudelako eta bere tesoro txikiak eta gainera gustatzen zitzaien egunero bakoitza bere amari Ikastolan zer egin zuten erakustea, eta zorrerik gabe ezin zioten erakutsi, zeren hori bai, Ikastolan egindako lanak berehala erakusten zizkieten gurasoeri; jaitsi eta ataritik atera eta bloka eta egindako beste gauzak erakusten zituzten, hori oso inportantea zen eta gainera nik uste dut gurasoak orain baino kasu gehiago egiten zutela eta garrantzia ematen zioten bere seme-alabak eginda-koari eta «oso ondo egin duzu, bihar hobeto» eta horrelako gauzak esaten zizkieten; beti parte hartzen zuten amek seme-alaben bila etortzen zirenean. Argi dago, orduan, zorroa ez eukitzean ezin zutela erakutsi eta gainera etxean arrazoi bat edo esplikazio bat eman behar zuten zorroaren faltagatik.

23- *Ikuitu ez dugun guiaren bat aipatu nahiko zenuke?*

Bai, Ikastolan nere Amak erligioa ematen zuela. Eguneroko otoitzaz gain, nere Amak Lehenengo Jaunartzea egin behar zuten neska-mutilak prestatzen zituen. Hasera batean Elizak ez zuen Doktrina Euskaraz esplikatzeko edo azaltzen eta Amak, klaseak bukatu eta gero, Lehenengo Jaunartzea egin behar zutenei Doktrina esplikatzeko zien. Aipatu nahi dut, ez ziela Mandamenduak eta otoitzak bakarrik irakasten, esplikazioak ere ematen zizkiela, Jaunartzea zer zen eta zer esan nahi zuen azalduaz. Jaunartzeko garaia iristen zenean Amak Uliako bide zaharran dagoen San Jose de la Montana Eleiza alkilatzen zuen eta han Euskaraz Lehenengo Jaunartzea egiten zuten. Amak ere Meza Euskaraz emango zuen apaiza deitzen zuen. Batzutan Aita Lasa frantzizkotarra etorri zen; oso sermoi politikak egiten zituen umeentzako.


Geroxeago, 1967. urtearen inguruan Elizak Doktrina Euskaraz ematen hasi zen, eta orduan Ikastolako umeak hara joaten ziren, baina hala ere Amak prestatzen jarraitu zituen, eta egia esan Elizan Doktrina ematen zuten apaizek ezkertzen zioten Amari bere lan hau.

24- *Azkeneko galdera. Noiz isten duzue zuen Ikastola?*

Ikastola nik 1975. urtean itxi nuen. 1970. urtean Amak gaisotasun baten-gatik ez du kurtso berria hasten eta ni bakarrik gelditzen naiz Ikastolan, eta horrela jarraitzen dut lehen esandako 1975. urterarte. Urte honetan nik Ikastola isteko erabakia hartzen dut, konturatzen garelako gero eta zailagoa gertatzen zaiela gure ikasleei 9 urtekin, gure Ikastola utzi behar dutenean, beste ikastola handi batera pasatzea, ikastola handi hoietan ikasle asko dagoelako eta ez delako erreza gertatzen 9 urtekin ametituak izatea. Urte horretan ere «Corazón de María» erdal ikastetxea ikastola bihurtzeko lanetan ari dira, eta nik hango arduradunekin hitzegiten dut nere ikasleak hara igarotzeko. Han oztoporik gabe onartuak izan ziren. Ni Hernaniko ikastolara pasa nintzen irakasle bezala lana egitera, 4. kurtsoa emanez. Hauxe da dena.



«Leoi'Kumea»ren azala.




Agoa zabaltzen dio, ta kristalezkoak ere bai ; asarretzen da,
ta bestea ere bai. Zein ote da bizkorrena ? Biak elkarren bete.

«Leoi'Kumea»ren orria.

Etxe ortan ba-zituten untxi edo koneju zuri batzuk. Untxi oiek ikaratiak dira, baña gure Niniko onek ez ditu ikaratzen. Lcoiak belarri motzak ditu eta untxiak luzeak.

Ezin esan Ninikori *belarri-motz*, Euskalerrian beste zerbait esan nai baitu. Untxi edo konejueri ere ezin esan *belarri-luze* gure artean astoari esaten baitzaio. Belarri-tente, izatekotan.

Ez dira asarretuko, ta ez dira asiko elkarri izengoitiak ematen. Ori, gauza itsusia litzake.




«Leoi'Kumea»ren orria.




Bañan, ez; Niniko ez da bildurti. Aurpegi eman dio, eta orra adiskidetu. Katuari konkorra zapaldu zaio, isatsa zutitu, ta begiak pakeatu. Maite egiten ba'diozu, katuak bizkarra zelaituko du, ta isatsa goratuko.


Katua zakurrarekin ere adiskidetzen da, etxean ala oiturik ba'dago.

«Leoi'Kumea»ren orria.



«Umien Adizkidia»ren azala.






m

mi mo

ma mu me

a ma, a me a,
 ma ma, a ma ma, a ma me a,
 ma mu, mei, meia, e me,
 e mi a, u me, u mi a, a mu,
 a mu a, a me ai, a ma me ai,
 u mau, u mi ai,
 u mi oi, mai,
 mai a,



r

a r e r

o r u r i r

a r, a r a,

u r i, a r o, a r u a,

u r a, e r e, e r i a,


e r o, e r u a, o r, o r a,

o r i, o r e i, o r u, a r i, a r i a,

u r e, u r i a, e r u, e r u a,

e r i, e r i a, u a r a, a m o r u,

o r m a, o r m e a, a r u.






k

ka ke ko ku ki

ka ti lu, e ka i, ka tu, la pi ko,
la pi ku a, ku ku, o ka, to ki,
ki ki i ki, ma kil,
ma ki la, i kus ten,
i ku si, o lo to ki,
e i ko, mu ti laik,



le kai me, i ka si,
sa kel, sa ke lau,
la gu naik, es ku,
le ku, ne ke.

16



b

ba be bo bu bi

ba u, ba u ku a, bei bat,
bi, bost bei, bo ta, bus ti,
bu u ka, i bi li, bi la tu, ba se i,
ba i, bai, be la i, be laun,
be lau na, ba na ka, be ti ko,
a bo, a bu a, be la, be le a,
be ko ki, bu la a, sa be la.



17



tx

txa txe txo txu txi

txa ku' a, e txe, e txi a, txa pe la,

txol, txo la, txo le ta, txu, txu a,


txis tu, txis tu ba, txi mis ta,

txi mis te a, ba se txi an, txabola,

txa bo le a, txi o ka, a txa,

ba ko txa, i txi, ku txa, txa no,

txa nu a, txa lo, txa lo ka.



d

da de do du di

edu' a, o do la bi de, bi di c,

i di, bi de ka tu, txai de.

txai di a, txa do na, lu di, lo di,

deu na, sal de a, e de' a,

a da' a, o dei, e dan,

e dan dot, da na-da la,

dau, bai-da, da la ko

da to' a na, e do.

